

GUaiXE.eus



Bihartik
astelehenera
festa Lizarragan



Sakanerria >> 8

Burundarrendako Nafarroako
erlojupeko txirrindularitza
txapelak: Ailetz Lasa, Maialen
Aramendia eta Eneko Aramendia



Kirolak >> 14



San Joan sua

>> 8-9



Mank-en eta
Nasuinsaren
arteko
hitzarmena >> 3



Eskola kontzen-
trazioagatik
gehiago jasoko
dute udalek >> 3



Irakurri,
gozatu eta
oparitu, azken
egunak >> 15



Udal berriak osatuta
eta lanean

>> 6-7

GUztion esku dago

>> 5

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Janitz ZORIONAK, Janitz!
5 urte bete ttuzu!
Egun on-ona pasatu!
Etxekuek.



Intza Arregi Martin
Zorionak zure familia guztiaren partetik, bereziki zure ahizpa Olatzen partetik. 21ean 11 egingo dituzu. Ongi-ongi pasa!



Uxue Lacalle Etxarri
ZORIONAK, potxola!! 7 urte beteko dituzu!! Oso ongi pasa eta muxu pila bat. Familiaren partez.



Iraia ZORIONAK potxola!!
9 urte ze zaharra!!
Muxu asko zure familiaren partez.



Haizea
Zorionak Haizea. Musu handi-handi bat Egilazko eta Altsasuko familien partetik. Mila kilo zorion zure urtebetetzean.



Urtzi taberna
Zorionaaaaaaak zure urtebetetzeaaaaaaan, zorionaaaaaaak ta urte askotarakooooo. 25 urte eta aurrera cava eta gusanitoen etxeak!
Noizko Chicote Urtzin? Tarariririri, Gora San Fermin! eta Lixarrengo independente!

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

garagarriak

19-25

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Duo Beti Jai. Garagarriaren 19an, ostiralean, 21:30etik aurrera Altsasuko Ibarrea jatetxean.

Trio Veracruz eta Andoni Sarobe. Garagarriaren 20an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Trasteando.**

Dokumentalak

Urruti vs Gertu. Garagarriaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Sare.**

Bertsolaritza

Eneko Lazkoz eta Julio Soto. Garagarriaren 20an, larunbatean, 22:00etan Lakuntzako Pertza elkartearen.

Mahai-ingurua

Dispertsio politika. Garagarriaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlariak: Etxerat, Jaiki Hadi eta Mirentxin gidariak. Aurretik dokumentala. **Sare.**



Gaur, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Besabi-Arano. Garagarriaren 21ean, igandean, 6:00etan Olatzagutitik abiatuko da autobusa. **Sakanako Mendizaleak.**

Achergo gaztelua. Garagarriaren 21ean, domekan, goizean Altsasuko kirol etxetik. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Ultzurrun-Altsasu. Garagarriaren 20an, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gune partetik. 112 km. **Zikloturista taldea.**

Iruñerriko mendizerren zeharkaldia. Garagarriaren 21ean, domekan, 7:30ean Altsasuko plazan. 70 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 19an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzeak.

Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Aritz Munarriz
- Emakumeen mundu martxa
- Sakanako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkartearen logoa

Esataria: Maider

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

ARALARKO KOFRADIAREN BILKURA:
Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren kofradiako kideek urteroko batzarra eginen dute igandean. 12:30ean eginen da, meza

nagusiaren ondoren. Aurretik izena eman duten kofradeek batzarra eta gero bazkaltzera geldituko dira.

ezkaatza

SAKANA

Mank-ek eta Nasuinsak industriari buruzko informazioa partekatzeak akordioa sinatu dute

Proiektu pilotua da eta bi erakundeek Sakanako zoru industrialari, azpiegiturari eta aktibitate industrialen inguruko informazioa partekatuko dute

Sakanako Mankomunitateko eta Sakanako Garapen Agentziako lehendakari Aitor Karasatorre Muguruzak eta Nasuinsa enpresa publikoko (Navarra de Suelo Industrial SA) Sergio Ezkurra Lopez de la Garmak elkarlan akordioa sinatu zuten astelehenean. Haren arabera bi erakundeek ibarreko zoru industrialari, azpiegiturak eta aktibitate industrialaren inguruko informazioa partekatuko dute. Udaberriaren hasita, proiektu pilotua aurten garatuko da eta bukatu arte iraunen du bi aldean arteko akordioak.

Nasuinsak zoru eta poligono industrialen inguruan landutako Geografia Informazio Sistemen datu basea izanen du oinarri. Abiapuntu hori izanda, Sakanako Garapen Agentziak, ibarreko informazio bilketa eta eguneratzea eginen du, egun dauden ekimen industrial guztien identifikazioa eta karakterizazioa eginaz. Horretaz aparte, hutsik dauden zoru eta eraikin industrialen identifikazioa ahalbi-



Iker Manterola (2.a) eta Aitor Karasatorre (4.a) Nasuinsako ordezkariekin.

detuko du, Sakanan ezartzeko interesa duten enpresei informazioa baliagarria eskura jarritz. Azken hori Sakanako Plan Estrategikoan (SPE) lehentasunezko ekintzetako bat da. SPEn jasotako beste hainbatekimenek bezala, eragile ezberdinen arteko elkarlanak ahalbidetuko ditu.

Akordioan jaso dutenez, Nasuinsak web bidezko aplikazio baten

bidez zoru eta aktibitate industrialaren inguruko informazio guztia Sakanako Garapen Agentziaren eskura jarriko du. Datuen eskuragarritasuna telefono mugikor edo tablet modukogailuen bidez izanen da. Ekimena, Nafarroan proiektu pilotua da, eta Sakanara mugatuko da lehen fasean; etorkizunean Nafarroako beste eskualdeetara zabaltzeko aukera izanen da.

>> Irurtzun / Etxarri Aranatz

Eskola kontzentrazioa izateagatik udalek diru gehiago jasoko dute

Beste herrietako ikasleak hartzetik sortzen diren mantenu gastuengatik ordaindu beharko du Hezkuntza Departamentuak

Nafarroako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Sala berriki emandako epaian Irurtzongo, Etxarri Aranatzko eta beste 15 herrietako udalei arrazoia eman die. Auzitegiaren epaiaren arabera Hezkuntza Departamentuak eskola kontzentrazioetan beste herrietako ikasleak hartzeagatik sortutako gastuak pagatu beharko ditu, eskola kontzentrazioa duten udalei ez baitagokiek "bere komunitateari ez dagozkion kostuak bere gain hartzea". Departamentuak eskolen gastu horren zati bat bere gain hartzen zuen, baina urtetik urtera diru-kopurua jaitsi egin du, bere zeregina ez zela argudiatuz.

Duela hamarkada batzuk Nafarroako Gobernuak herri txikietako hainbat eskola txiki itxi eta hango ikasleak eskola kontzentrazioetara eramanez zituen. Udalak



eskolen mantenuaz arduratzen direnez, Udala eta Kontzejuen Nafarroako Federazioak eta Departamentuak akordioa lortu zuten. Horren arabera, beste herrietatik eskola kontzentrazioa joaten ziren ikasle kopuruagatik dirua jasoko zuten udalek.

Izan ere, ikasle gehiago egotean udalek zegokiena baino diru gehiago bideratu behar zuten mantenuerako. Herri txikiak gastu hori estaltzea ere ez zen egoki ikusi orduan: ez zirelako ikastetxearen jabe eta ikasleak herritik kanpora eramanez dagoeneko zigorra jasotzen zutelako.

arbizuko kanpineneko taberna
ONDO PASA JAIEGAN!
KANPINA
Erreserbak: 635 093 140

Bazkariak eta afariak gurean. Zatoz!!!

Olatzea
Lands Hotels • Hotel Rural

info@hotellolatzea.com • www.hotellolatzea.com
Errota kalea z/g • Tel.: 948 46 18 76 • Fax: 948 46 18 77 • 31839 Arbizu (Nafarroa)

Ongi pasa festetan!

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

ARBIZUKO SAN JUAN FESTAK
Ekainaren 23tik 28ra
2015



Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Waterloo

Atzo, ekainak 18, Napoleon behin betiko garaitua izan zen Waterloo-ko borroka zelai ospetsua izan zeneko berrehun urte bete ziren. Abbaren kantuezagunaz gain, Belgikako herri horren izena porrotaren sinonimo bihurtu da literaturan. Vietnam bat jasatea edo Waterloo bat jasatea mingarria

benetan inperioentzat. Napoleonen izaera ez zegoen galtzeko prestatua, errealitatea onartu ezinaren eredu da, behin Elba uharte italiarrera erbesteratu ostean boterea berreskuratzen saiatu zen enperadorearena.

Gurean ere badira porrota onartzeko gaitasunean eskasak diren

agintariak. Behin galdu ostean dolu prozesua autokritika egiten pasa ordez, besteek egi dela dioten errealitate hori faltsua dela esaten dutenak. Madrilen Agirre ultraliberalaren ezintasunak bere programa politikoa sozialistekin partekatzen zuela esan zueneko eredu. Baita gertuago ere, Nafarroako

enperatriz izandako emakumearena, irrati inperialistetan zabaldu zuten Nafarroa Hitler aurreko Alemaniara gerturatzeko hasia zela, edota hauteskunde sistema aldatu beharra zegoela jasotako egurra ikusi eta ulertu ezinik.

Napoleon Atlantiko erdiko irla txiki batera erbesteratu zuten, itzu-

likozen beldurrez itzultzeko pasaiarik gabeko bidaian. Guk hemen ez dugu inor erbesteratuko, baina Kantabria urrunean egindako jauregietan erbesteratuko ote du bere burua, jada ez den Nafarroa baten itxura zaharkitu eta ustela aldarrikatu zuen euskaldunen etsai haren memoria.

barrutik kanpora

Euskara inportantea delako zuentzat

Aurkeztu berri du Behatokiak hizkuntza-eskubideen gaineko azterketa biltzen duen Urteko Txostena.

Orri horietan jasotzen diren bizi-penak uzten duten argazkian euskaraz bizi nahi duzuen herritarrak ageri zarete toki nabarmenean. Euskaraz bizitzeko aukera kontzientea egin duzuen pertsonak, ahal duzuen guztietan euskaraz egi-

ten duzuenak, natural eta bizi-pozez.

Euskara erabiltzea galarazten zaizuen sentitzen duzuen inportentzia, eta askotan amorrua, oztopoak gainditzera bideratzen duzue. Euskaraz bizitzeko hautu kontzienteak bultzatuta, urraketari konponbidea bilatu asmoz, zuen eremu txikiko errealitatea aldatzeko eta egoera hobetzeko zerbaitegi-

teko beharra sentitu duzuelako, laguntza eta babes bila jo duzue Behatokira.

Urraketa egoeren aurrean erantzukizunak dituzten pertsonak maiz agertzen duten uzkurkeriaren eta utzikeriaren aurrean motorra zarete hizkuntza-eskubideen arloan pauso eraginkorrak bideratzeko. Euskaraz bizi nahi hori egiazki betetzeko egiten duzuen

indarrak aldaketak eragiten dituelako administrazioen eta entitateen hizkuntza-portaeretan.

Eragin zabala eta orokorra dute aldaketa horietako batzuk (web gunea euskaratzea), maila pertsonalagoan geratzen dira beste batzuk (telefono konpainiarekin sinatu behar duen kontratua euskaraz eskatzea) baina, horietako bakoitzak, areagotu egiten ditu euska-

raz bizitzeko aukerak. Aldaketa txiki askoren ondorioa izango delako aldaketa handia.

Zuek inportanteak zarete hizkuntzarentzat, hizkuntza inportantea delako zuentzat.

Hizkuntza Eskubideen Behatokia
www.behatokia.eus

hara zer dien

Emozioen garrantzia

Denok daukagu alderdi emozional bat, nahiz eta pertsona batzuk beste batzuk baino emozionalagoak izan. Alderdi honek garrantzi handia du eta ez badiogu arretarik jartzen, gure zati handi bat baztertzen dugu. Oinarritzeko emozioak (poza, tristura, beldurra, amorrua eta maitasuna) eta sentimendu ezberdin ugari sentitzen ditugu. Denek dute bere funtzioa eta denok sentitzen ditugu momenturen batean (tristurak adibidez, "gelditzera" behartzen gaitu, gutxiago egitera, gure buruari kasu egitera behartzen

gaitu).

Zergatik baztertzen ditugu? Bizitzan zehar zenbait emozio eta sentimendu ukatzen ikasten dugulako, beldurra diogulako emozio konkretu bat sentitzea, gure ingurunean (familian, lagun artean) gaizki ikusiak daudelako, baztertuak sentitzea beldur garelako...

Sentitzen dugunari erresistentzia jartzen diogunean, energia asko gastatzen dugu horretan eta borroka egiten dugu sentitzen dugunaren kontra. Honek, askotan, emozioa areagotu egiten du

desagerrarazi beharrean eta, gainera, gure gorputzean eragina ere badauka. Adibidez, gorputza zurrundu, gogortzen da; emozio konkretu bat kontrolatzen saiatzen garenean, gure muskuluak eta artikulazioak zurrundu, gogortu ditzakegu konturatu gabe (lepokoak, sorbaldeak...).

Dagoen emozioa errespetuz onartzen badugu, gorputzak tentsioa deskargatzen du eta erlaxatzen da. Hau adibidez, triste gaudenean eta negar egiten dugunean gertatzen zaigu.

Irtinbiderik eman ez diegun

emozioei, ukatzen ditugun emozio eta bizipenak, gure egunerokotasunean ematen diren gertakizunekin piztu daitezke behin eta berriz. Honek aukera bat ematen du hauei irtenbide bat aurkitzeko eta gaur egun arte irauten duten iraganeko bizipenak gainditzeko. Hauek bizi, kontzientzia hartu eta esperientzia itxi ahal izateko.

Garrantzitsua da guk emozioak eramaten, bideratzen ikastea. Adibidez, guk tristura edo haserrea bideratzea, ez alderantziz, haserreak ni menperatzea. Hau

guztia ez da erraza, ez da egun batetik bestera lortzen, baina honek gure oreka emozionala areagotzen du. Gure emoziotan konfiantza hartzen dugunean, gure segurtasuna areagotzen da eta kontrolatzeko beharra gutxitu egiten da.

Gure barne errealitateari arreta jartzen diogunean, jakin dezakegu zer garen, zer sentitzen dugun eta zer behar dugun.

Narrea Iraurgi Arrieta,
Psikologoa eta Gestalt terapeuta

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRATIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

LAKUNTZAKO ESKOLARENDAKO KANTA: Ikastetxeko gurasoek Eskola bizia kantua sortu dute eta larunbatean eskolaren festan eman zuten. Hari lotutako marrazkia

ere egin zuten eskolan. Elkarlanean egingo dako kantua bideoa ere badu: <http://youtu.be/Q9H95wRhPHU>

sakanerria >>

SAKANA

Guztion esku dago

Igandean ekitaldi masiboa deitu du Gure Esku Dagok Iruñean, Donostian, Bilbon, Gasteizen eta Baionan; eguerdian eta arratsaldean ekitaldi nagusiak izanen dira

Gure Esku Dagok, erabakitze esku-bidearen alde lan egiten duen dinamika herritarrak, deitutako ekitaldi handietarako bi egun geratzen dira. 2014an erabakitzearen aldeko taldeak Durango eta Iruñea bitartean burututako giza-kate arrakastuaren ondoren, josten jarri ditu euskal herritarrak. Herri eta talde bakoitzak erabakitzearen aldeko mezuz jositako oihalak egin ditu, gero oihal horiek guztiak elkarrekin josi egingo dira eta etzi Iruñean, Bilbon, Gasteizen, Baionan eta Donostian deitutako ekitaldietan oihal horiekin guztiakin hautetsontzi erraldoiak osatu

tuko dira.

Goizean oihal kateak

Etzi, 11:30ean, Iruñeko hainbat plazatan biltzeko deia egin du ekimenak. "Sakandarrok Jarautatik gertu dagoen Santa Ana plazara gerturatu beharko dugu. Herritan josi ditugun oihalak eramango ditugu eta Nafarroako gainontzeko txokotan jositako oihalekin batuz zutabe ezberdinak osatuko ditugu, zerutik begira hautetsontzi erraldoiak irudikatuz" gaineratu dute Gure Esku Dagoko kideek. Oihal katea 12:00etatik 12:30etara burutuko da eta ondoren mota guztietako ekitaldiak prestatu dira Iruñean.

Ekitaldi nagusia zezen plazan

Jai giroak arratsaldera arte iraun-

Iruñeko egitaraua

12:00etan Oihal katea. Udaletxe plaza, San Frantzisko plaza, Santa Ana plaza (Sakandarrak hemen), Gaztelu plaza eta Burgoen plaza.

12:30ean ekitaldiak: Joteroak Gaztelu plazan, dantzariak udaletxe plazan, herri kirolak Burgoen plazan, umeen txokoa Santa Ana plazan eta bertsoariak San Frantzisko plazan.

16:30ean Zezen plazako ateen irekiera.

17:30ean Ekitaldi nagusia zezen plazan.

20:00etan Kontzertuak zezen plazan: Esne Beltza, Petti, El Drogas, Josetxu Piperrak...

*Oharra: Jai giroa egun osoan zehar: kilikiak.

go du, 17:30ean abiatuko baita ekitaldi nagusia, Zezen plazan. Plazak ordu bat lehenago zabalduko ditute. Helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek 5. Sarre-



AINARA ABERASTURI

ren diru guztia igandeko gastuei aurre egiteko bideratuko da, gastu asko dituelako. Ekitaldi nagusia *Gaur hautetsontzia bihar erabakia* lelopean gauzatuko da. "Hautetsontzi erraldoia osatuko da eta uste dugu herrietan jositako oihalekin estaliko dela. Horretaz gain, ekitaldi ezberdinak izanen dira. Ikusgarria izango da" diote antolatzaileek. Sakanak tendido oso bat betetzeko ardura duela gogoratu dute Sakanako Gure Esku Dago taldeko arduradunek, eta erabakiaren aldeko ekitaldietara joateko gonbi-

Autobusak

Iruñera joateko autobusak antolatuta ditu Gure Esku Dagok. Autobusak goizez eta arratsaldez aterako dira, soilik ekitaldi nagusia joan nahi dutenendako. 7 euroren truke egingen da joan-ettorria.

tea egin diete sakandarrei, Gure Esku Dagoren kamiseta jantzita. Ekitaldia despidituta 20:00etan kontzertuak izanen dira zezen plazan.



Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak badu logotipoa

Saioa Lizarraga altsasuarraren logotipoa aukeratu dute jasotako 18 proposamenen artean

Elkarteak sustatzen dituen hiru sektoreak jasotzen dituen logotipo baten alde egin du Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak, Saioa Lizarraga altsasuarrak eginak. Aurrerantzean elkarteak antolatutako ekintza eta jarduera guztien irudia izanen da logotipo hori.

Lizarraga Inprimatuen eta Multimedia-Argitalpenen Diseinu eta Edizioko ikaslea da. Bigarren mailari ekinen dio udazkenean. Irabazi duen lehen lehiaketa da eta pozik hartu du albiste. Elkartera kide-tutako establezimenduetan gastatzeko 200 euroko balioa duen txartela irabazi du. Berak, bestalde, ostalaritzarekin lotura handia du, gurasoek Altsasun taberna baitute.



Ibone Prieto Gorospe, Iñaki Arana Orzaiz, Saioa Lizarraga, Tania Ganboa Saez de Andana eta Dolores Urkijo Lopez de Sabando.

Asmoak

Sakanan tokiko merkataritza sustatu eta ekimenak martxan jartzeko sortu zen joan den udan Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarte. Bere helburua

denborarekin eta proposatutako ekintza eta kanpaineekin hiru sektoreetako ordezkari bihurtzea da. 42 kideekin abiatu zen eta 53 dira gaur egun (Irurtzun, Lakuntza, Etxarri, Altsasu eta Olatzagutiko-

ak). Azken horiek kide ez diren establezimenduetako jabeekin jartzeko asmoa dute, elkartearen abantailak azaldu eta kide izatera animatzeko. Udan emanen diote bultzada kanpaina berriari.

Guaixe astekarian

Hilero elkarteko establezimenduek Guaixe astekarian deskontu txartelak argitaratzen dituzte. Iragarki bateratu horretan gehenez 10 establezimenduren deskontu txartelak daude. Irakurleek haiek moztu eta dendan aurkeztuta deskontu zuzena baliatu dezakete. Deskontu txartelak ez dira metagarriak.

Tania Ganboa Saez de Andana presidenteak jakinarazi duenez, sakandarrak tokiko establezimenduen garrantziaz jabetzeko irailen sentsibilizazio eta kontzientziaz kanpaina egingen dute. Horretarako, eskoletan haurrendako hitzaldiak egingen dituzte. Helduendako saioak kultur etxetan izanen dira. Udazkenerako opari eta deskontu txartelen kanpaina indartsu bat egingen dute kide-tutako establezimenduetan, "bezeroei euren fideltasuna eskertzeko asmoz". +www.guaixe.eus



Hyundai i20 Berria

Inspirazioari begiak ireki.

Munduari beste begi batzuekin begiratu gero, zugandik gertu dago inspiraziorik handiena. Ez zenuen espero eta bapatean bere mailan inoiz ikusitako detailaz hornitutako lekua eta espazio ikaragarria aukitzen duzu. Zure begiak ireki eta espero ez zenuena bizi.

i20 Berria 9.550€tik hasita

www.hyundai.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



i20 Gama berria: CO₂ (gr/km) Emisioak: 99-155.
Kontsumo mixtoa (l/100km): 3,8-6,7

i20 1.2 MPI (85CV) ESSENCE (9.550€) Penintsulan eta Balearetan PSP aholkatuta. BEZ, garraioa, matrikulazio zerga, promozio deskontua, konzesionarioaren ekarpena eta mantenimendurako eskaintza. Eskaintza hau Santander Consumer EFC S.A. ren bidez finantzatu duten bezeroendako izango da, 9.550€ko zerbatekoa izango duena eta 60 hilabeteko gutxieneko epea izango duena. Finantzaioa entitatearen ikerketa eta onarpenaren pean dago. Ikusgai dagoen modeloa i20 Style. Kotxearen finantzaioari lotuta dago mantenimendua. Eskaintzaren baldintzak eta mantenimendu argibideak Hyundai kontzesionarioetan edo hyundai.es-en.



SAKANA

Kontseiluak gobernu berriari "hizkuntza politikan erroko aldaketa" eskatu dio



Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko idazkari Paul Bilbaok asteartean adierazi zuenez, "herri-tarren nahiari jarraituz, hizkuntza-politikan egiturazko aldaketak egin behar dira. Gobernu berriak, aldatetaren gobernuak, hizkuntza politika berri bat jarri behar du abian". Aldaketa nahia apirilaren 25ean Anaitasun egindako ekitaldian eta 2010ean Kontseiluaren eskutik egindako manifestazio handia ekarri zituen gogora Bilbaok.

Kontseiluko kidearen iritziz egiturazko lau bide definitu behar dute hizkuntza politika berria. Lehenik etabehin, Vascuencearen legetikeuskararen legera jauzi egin behar da. "Euskararen normalizazioa eragotzeko helburua izan duen erregimenaren arkitektura juridikoa errokit aldatu beharra dago eta araugintza berria indarrean jarri".

Bigarrena, arlo publikoko eta pribatuko plangintzei dagokiena da. "Hizkuntza politika planifikatua egin behar du Gobernu berriak helburuak eta epe zehatzak ezarri". Hizkuntza politika egoki garatzeko baliabide administratiboak, ekonomikoak eta giza baliabide egokiak bideratzea eskatu du hirugarrenik. Eta "azkenik, erregimenak eraiki dituen diskurtso eta ideia zitalak desegiteko lan intentsua egin behar du Gobernu berriak", Bilbaoren esanetan.

Kontseiluko kideen ustez aipatutako guztia egoki lantzeko konplizitatea da bidea. "Euskara normalizatzea zeregin politikoa eta soziala da aldi berean eta egoki lan egiteko beharrezko zubiak eraiki behar dira. Kontseilua prest dago lan horri ekiteko", gaineratu du idazkari nagusiak. Bilbaok jakinarazi zuenez, lau ildo horiek jasotzen dituen dokumentuaren arabera baloratuko du Kontseiluak Gobernu berriaren ibilbidea.

Bakaiku

Festetako kartel lehiaketa

Bakaikuko Kultura Batzordeak haurrei zuzendutako festetako kartel lehiaketa antolatu du. Bi maila izanen dira, 7 urtera arte bata eta 8 eta 14 urtera artekoa bestea. Kartelean ezinbestean testu hau agertu behar da: Bakaikuko festak 2015 uztailaren 23tik 27ra. Saria marrazkia festetako egitarauko azalean agertzea izanen da. Lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketan antolatuko da festetan. Lanak gutunazal itxi batean San Joan egunean aurkeztu daitezke, opila jasotzean.

Arakil

Haurrendako eskaintza egin du udalak

Multi-aisialdi kanpua egingen da Arakilgo herrietan agorrilean. Izen ematea garilaren 27ra arte egin daiteke 948 500 101 telefono zenbakira hots eginez

Aurten ere Arakilgo Udalak haurrei zuzendutako eskaintza prestatu du agorrilerako: Multi-aisialdi kanpua. Agorrileko astearte eta ostegunetan izanen da, 10:00etatik 13:00etara. 5 eta 14 urte arteko haurrei zuzendutako dago. Izena ematen dutenek makina bat jardueratan ariko dira: igerilekua, mendi irteera, sukaldaritza, kirolak, jokoak, piraguismoa, eskulanak, ginkana eta abar. Arakilen erroldatua dauden haurrek izena emateagatik 30 euro ordaindu beharko dituzte eta ibarrean erroldatuak ez daudenak 40.

Irurtzun



Igerilekua gaur zabalduko da

Gaur, 11:00etan, zabalduko da Itxesi igerilekua bainu denboraldia, irailaren 6ra arte zabalik egonen dena. Igerilekuak 11:00etatik 22:00etara egonen dira zabalik, baino bainua hartzeko ordutegia 20:30ean bukatuko da. Irurtzongo Udaletik jakinarazi dutenez eguneroko txartela igerilekuko sarreran eros litezke: 5 urtera arte, dohainik; 5 eta 14 urte bitartean 4 euro; 15 eta 65 urte bitartean 6,5 euro eta 65 urte baino gehiagokoak dohainik, baina Irurtzunedo Arakilen erroldatuta ez badaude 3 euro. 15 eguneko txartela (30, 48 eta 18 euro) edo sasoi guztikoa (54, 65,5 eta 86 euro) eskuratzeko berriz, udaletxeko bulegoan egin beharko da. Aldez aurretik, kutxa edo banku batean dagoen diru-sarrera egin beharko da. Informazio gehiago nahi duenak udaletxetik pasa edo 948 500 051 telefonora hots egin dezake.

Urdiain

Bihar zabalduko da igerilekua

Aitziber elkarteak Urritzin duen igerilekua bihar zabalduko da. Agorrilaren 31ra arte, 10:00etatik 20:00etara, Urdiaingo igerilekuan bainua hartzeko aukera izanen da. Jendearen arabera, taberna zerbitzua denbora gehiagoz eskainiko da. Aurtengo kudeatzaileek igerilekuan kontzertuak, haurren eguna, triatloia eta beste jarduerak izanen direla aurreratu dute. Bestetik, enkarguz bazkariak eta afariak emanen dituztela ere jakinarazi dute. Aldez aurretik eskatu beharra dago 948 391 132 telefonora hots eginez.

Udalen osaketa



Arakil

Arakilgo Independentek taldeko buruak, Ruben Goñi Urrozek, bigarren legegintzaldiari ekin dio. Bere taldeko zinegotzien botoak jaso zituen. EH Bilduko Jose Javier Beroiz Plano absenteitu egin zen. Bere kide Maria del Mar Esparza Luri ezin izan zuten bilkuran egon.

Irurtzun

Ordezkaritza lortu zuten hiru alderdietako buruak aurkeztu zuten euren burua alkatetza eskuratzeko. Gehiengo duen EH Bilduko Aitor Larraza Carrera aukeratu zuten alkate. Domingo Goñi Sarasolak ez zen larunbatean egon eta beste bilkura batean hartuko du kargua.

Irañeta

Juan Angel Beraza Gastesi da alkate berria. Larunbatean Migel Alfonso Itoiz Irigarai eta Itziar Armendariz Juangok hartu zuten kargua. Asteartean larunbatean egon ez ziren zinegotziak hartu zuten: Jose Manuel Lizarraga Mendinuetak eta Aitor Garmendia Arbillak.

Uharte Arakil

Ainara Aiestaran Ijurko Uharte Arakilek izan duen lehen emakume alkatea da. EH Bilduk du gehiengo udalean: Miren Rabaz Irañeta, Juana Maria Sainz Bete-lu, Mikel Razkin Barandain eta Javier Rodriguez Astiz. UPNK bi zinegotzi ditu: Jorge M Perez Vizcaino eta Fco J. Fdz Garcia.

Arruazu

Larunbatean hartu zuten kargua Arruazuko Batzalarreko zinegotziek. Guztiek Pello Bete-lu Ganboa aukeratu zuten alkate. Harekin batera udalean daude: Aritz Satrustegi Ganboa, Ainara Martin Busto, Mikel Satrustegi Unzilla eta Patxi Satrustegi Ganboa.

Lakuntza

EH Bilduko 9 zinegotzik izango dute herria gidatzeko lana: Patxi Xabier Razkinek, Juanxo Gayak, Aitor Garciak, Rafael Etxeberriak, Ruben Rodriguezek, Javier Ardaizek, Izaskun Igeltzek, Pello Ruizek eta Josu Imazek. Legeak hala aginduta formularekin hartu zituzten karguak.

Udalen osaketa



Arbizu. EH Bilduko kideez osatutako udalean Karnele Marañon hartu zuen alkatetza. Zinegotzien artean bere aurretik alkate izandako Miren Mendinueta eta Jesus Mari Mendinueta daude.

Ergoiena. Bi zerrendek aurkeztu zuten alkategaia. Joseba Imaz Berastegi da alkate berria. Udalean Josune Lizarraga, Irantzu Mozo, Mikel Lizarraga, Xabier Senar, Aitziber Andueza eta Florencio Etxarri zinegotziak dira.



Etxarri Aranatz. Patroiaren eguna izanik, udalbatza berriak aurreneko ekitaldi ofiziala izan zuen Larunbatean. Haren buru aurreko legegintzaldian alkateorde izandako Eneka Maiz Ulaiar dago.

Bakaiku. Sakanan osatzen udal goiztiarrena izan zen Bakaikukoa. Egoitz Urriza alkatearekin batera Aner Galarza, Asier Razkin, Izaskun Kintana, Francisco Javier Zeberio, Pedro Mari Olea eta Ion Tabar daude udalean.



Iturmendi. EH Bilduko Victoriano Gabirondok, Nemesio Galarzak, Jose A. Garciak, Ricardo Lopezek eta Norberto Lopezek kargua hartu zuten, "legeak hala agintzen duelako" formula erabilita.

Urdiain. David Oroz Alonso da Urdiaingo alkate berria. EH Bilduko Aitor Irigoien Irigoien, Oihana Gallo San Roman, Aitor Zubiria Arregi, Iñaki Galarza Agirre, Francisco Berdote eta Margarita Mendia daude udalean.



Altsasu. Javier Olló Martínez aukeratu zuen alkate larunbatean Geroa Bairen aldeko botoekin. EH Bilduk, Goazen Altsasuk eta UPNK boto txuria eman zuten eta PSNK bere hautagaiari eman zion botoa.

Olatzagutia. EH Bilduko Gurutze Rodríguez Armendariz bere koalizioaren 6 botoekin lortu du alkatetza. UPNK eta PSNK nork bere buruari eman zion botoa.



Ziordia. Patxi Bengoetxea alkatetzara bueltatu da (1999-2003). EH Bilduren aldeko botoak eta Geroa Bairen abstentzioa izan zituen hautaketan.

Ongi pasa festetan!

POLIKIROLDEGIKO TABERNA

Goizeko 8etatik aurrera zabalik

Sandwichak	Errazioak
Bokatak	Hanburgesak
Pizzak	Pintxoak
Plater konbinatuak	Gosariak

948 461 610
ARBIZU

irakurri, gozatu eta oparitu

LIBURUAK EROSTEKO 30 EUROKO 5 TXEKEREN ZOZKETA

Gozatu Bidaiaz

Mank sakana

IRABAZLEAK:

- Maite Miguel (Altsasu)
- Nerea Bengoetxea (Urdiain)
- Olaia Erdozia (Etxarri Aranatz)
- Aitana Mendoza (Ziordia)
- Leire Zudaire (Irurtzun)

* Txekak liburutegian jaso ahal izanen dituzue.

San Joan ospakizunak Sakanan

Arbizu

>> Garagarriak 23, asteartea.

San Joan bezpera.

19:30ean Suziria.
19:30ean San Joanera igoera Jaiak txarangarekin.
20:00etan Bezperak San Joanen, Arbizu eta Etxarriko eliz kantariekin.
20:30ean Maria Ionbrenen zaldiya.
21:30ean San Joandik jaitsiera.
23:30etik 3:30era Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Garagarriak 24, asteazkena.

San Joan eguna

10:00etan Dianak Jaiak txarangarekin.
11:30ean San Joana igoera.
12:00etan Meza nagusia San Joanen.
12:00etatik 14:00etara Puzgarriak plazan.
13:00etan Aate (Alda Bide).
13:00etan Buruhaundiak.
13:15ean Kartel eta balkoi sarien banaketa.
13:30ean Musika emanaldia.
17:00etan Kalejira Jaiak txarangarekin.
17:00etan Talo tailerra.
18:30ean Play back txapelketa eta hip hop erakustaldia.
20:00etan Aate.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
22:00etan Emakumeen afaria Baxerri erretegiaren.
22:00etan Zenezuzkoa.
23:30etik 2:00etara Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

>> Garagarriak 25, osteguna.

Gazte eguna

11:00etan Pilota partiden finalak.
12:30ean Aate (Argi Bidea).
12:00etatik 13:30era Puzgarriak plazan.
12:45ean Buruhaundiak.
13:00etan Suaren bulunba, txontxongilo emanaldia.
13:30ean Preso eta iheslarien aldeko argazkia.
15:00etan Gazte bazkaria.
17:00etan Jolasak eta piñatak haurrenako.
18:00etan Izozkiak haurrenako.
18:00etan Elektrotxaranga.
18:30ean Herri kirolak.
20:30ean Helduen ginkanaren bigarren froga.
20:00etan Aate
23:59ean Kontzertuak: Talco eta Guda dantza

>> Garagarriak 26, ostirala.

Preso eta iheslarien eguna eta kintoen eguna

10:00etan Dianak Sakanako trikitixa eskolarekin.
11:00etan Kintoak, pixkeet eskien.
12:00etatik 14:00etara Puzgarriak plazan.
12:00etan Aate (Zotola).
13:00etan Buruhaundiak.
13:00etan Triki-bertsu bermutha.
13:30ean Tortilla txapelketa (ekarri tortilla etxetik prestatuta).
17:00etan Piperropilen tailerra.
18:00etan Helduen ginkana, froga nagusia.
19:00etatik 22:00etara Herriko musikariak.
20:00etan Aate eta piperropilen dastaketa.
20:00etan Konzentrazioa.
23:30ean Ginkanaren jarraipena.
01:00etan Zumba.

>> Garagarriak 27, larunbata.

Jubilatuaren eguna

10:00etan Dianak herriko fanfarrearekin.

11:00etatik 15:00etara Zorri azoka.
12:00etatik 14:00etara Puzgarriak plazan.
12:00etan Altxorren bila.
12:00etan Jubilatuen meza.
12:30ean Herriko helduenei oroigarri banaketa.
12:30ean Aate (Sare).
13:00etan Buruhaundiak.
13:00etan Jubilatuen luntxa.
13:00etan Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.
15:30ean 4x4.
16:30ean Truk txapelketa.
18:30ean Bordetxe abere zirkoa.
19:30ean Daniarrak vs Arbizuarrak desafioa.
20:00etan Aate.
20:30etik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zenezuzkoa.
24:00etatik 3:30era Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

>> Garagarriak 28, igandea.

Haurren eguna

12:00etan Aate (Jubilatuak).
12:00etatik 14:00etara Jolas parkea.
13:00etan Buruhaundiak.
13:30ean Elai Elai dantza taldea.
14:30ean Haurren bazkaria.
16:00etatik 19:00etara Jolas parkea.
16:30ean Mus eta brixka txapelketa.
20:00etan Aate eta buruhaundiak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia The Trikititeens taldearekin.
23:30ean Les tambours de feus ikuskizuna.
23:15etik 1:00etara Dantzaldia The Trikititeens taldearekin.

Dorrao / Unanu

Ermitara bitan

San Joan ospakizunak asteburura aurreratu dituzte dorrobarrek. Gaur, 19:00etan, bezperak eta arrosarioa izanen dira San Joan ermitan (Nenau despopulatuaren eliza zena). Ondoren, kontzejuak auzate eskainiko du: ardoa, gazta eta ogia. Herrira bueltan, autobus geltoki ondoan, gurasoek sua piztu eta haren gainean saltoka ibiliko dira dorrobarrak. Larunbatean, berriz, ermitan meza izanen da, 10:30 aldera. Ondoren, auzatea izanen da. Dorraoko Kontzejuak herriko etxe bakoitzeko pertsona bat gonbidatuko du bazkaria. Bakarren bat gehiago joan nahi badu aurretik izena eman eta ordaindu egin beharko du. Unanun, berriz, Mediku kontsultategiko zelaian 20:30 aldera elkartuko dira. Bi su piztko dituzte saltoka aritzeko. Afaria ere prestatuko dute.

Lizarraga / Etxarri

Zorriyek eta partzak hiltzeko

Su gainean saltatzerakoan horixe errepikatuko da Etxarri Aranatzen,



auzetan piztutako suen gainetik saltatzerakoan. Lizarragan, Intxorreta kalean piztuko da su bakarra. Auzotarrek afaria prestatzeo eta saltatzeko erabiliko dute.

Bakaiku

Suak saltatzera

San Joan bezperan, iluntze aldera, San Joan suak piztuko dira Bakaikun. Su nagusia elkartearen ondoan egonen da. Gauza txarrak sutara botatzeko ohitura berrituko dute. Aurten "Erregimena sutara" botatzeko deia egin dute. Jakina, suak saltatzera animatuko dira bakaikuarrak.

Iturmendi

Egur loteak banatu ondoren sua

Iturmendi ohitura da San Joan bezperan etxetarako egur loteak banatzea. 19:30ean izanen da, herriaren etxean. Ondoren auzatea izanen da: txistorra, gazta eta ardoa. Etxeko txikienei izozkia emango zaie. Iluntze aldera, 21:30ak aldera, San Joan sua piztuko dute Arrano Beltza plazan eta afaltzera bilduko dira.

Urdiain

Kantaita, baseliza, sua eta afariak

Asteartean herriaren etxetik 19:30 aldera abiatuko dira herriko neskek, garai bateko soinekoak jantzita dituztela eta herriko txistulariak lagun, San Joan ermita aldera. Eurekin herriko dantzari txikiak eta herritarrak joango dira. Izan ere, San Joan ermita izango da San Joan bezperako ospakizunen muina. Ermitan meza izanen da eta haren ondoren, ermitako plazan, suapiztuko da eta arto koxkolak erreko dituzte txikienek. Aldi berean, emakume gazteek San Joan kantaita abestuko dute, eskutik helduta ermita eramanaz. Kantu bidez uztza ona eskatu dute. Ondoren dantzariak ariko dira. Bitartean auzatea eskainiko du herriko ermitan. Herrira bueltan afarietan bilduko dira urdiaindarrak, koadrilaka edo auzoka.

Altsasu

San Joan menua: sua, jatekoa, iratzeak eta abardiak

San Joan ermita ondoan astearte-

an piztuko den suarekin batera, maki-na bat su izanen dira Altsasun bar-na piztuko direnak. Haien gainean salto egin eta afaria prestatzeko erabiliko dira. Altsasuko Udalak jakinarazi du zorua babestu eta ez izoztatzeko ezinbestekoa dela are gainean egitea sua. Area behar duenak honako tokietan izanen du eskuragarri: Pilotajauku, Amandrea (hilerria), Zubeztia, Zelai-San Joan bidegurutzean, Intxaurren plaza, Idertzegain, Amaia, Zumalakarregi plaza eta kultur gune parean. Asteazken goizean, San Joan egunean, Altsasuko makina bat etxek iratze alfonbra izanen dute sarrean. Bestalde, balkoietan abardiak jarriko dira. Lizar adarrak maitediren pertsonen balkoian jarriko dituzte eta makalak horren gustuko ez dituztenen etxetan. Udaletik ohitura hori sustatzeko lehiaketa antolatuko dute. Parte hartu nahi dutenek iortia@altsasu.net helbidera bidali ditzakete argazkiak hilaren 27a baino lehen. Asteazkenean, ohi bezala, afariak izanen dira.

>> Garagarriak 23, asteartea

17:30ean Txupinazoa, trikitilariak lagunduta. Loretsua zirkua emanaldia eta haurrenako soppresak. San Joan plazan.
19:00etan Txokolate jana Beti Jai bikoteak girota.
19:30ean Udalbatza, Altsasuko Txistulariekin batera, San Joan ermitara abiatuko da. Sua piztea, dantzariak, fanfarrea eta auzatea, Foru plazan. Egubera taldea.
20:00etan Auzatea.
20:30ean Festaren hasiera: San Joan ermitan sua piztea. Herriko suak pizteko etxajua. Kalejira eta auzatea Foru plazara.
21:30ean Beti Jai bikoteak eta Sakaranga txarangak suak dauden kaleak girotuko dituzte gauean zehar.
23:00etatik 2:00etara Dantzaldia Tsunami taldearekin, San Joan plazan.

>> Garagarriak 24, asteazkena

20:00etan Zortzikoa, Altsasuko Txistulariekin, eta auzatea plazan.
22:30ean Dantzaldia Haize Berriak bandarekin, Foru plazan.

Olatzagutia / Ziordia

Su gainean saltoka

Olatzagutiko auzo eta kaleetan san joan suak piztuko dituzte olatziarrek. Lurra babesteko materiala udaletxean eskatzeko epea gaur despeditzen da. Ziordian, bestalde, asteartean herri afaria izanen da txipudian, 21:00etan. Horren ondoren sua piztu eta haren gainean saltoka ariko dira ziordiarrak. +www.guaixe.eus

SAKANA

Emakumeen Mundu Martxari harrera prestatzen

Herrietako festetan photo call-ak eta martxa irailaren 29an etorri aurretik aurkezpenak eginen dituzte

Emakumeen Mundu Martxari ibarrean behar bezalako harrera prestatzeko Sakanako hainbat emakumek dagoeneko bi bilera egin dituzte (Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdaian, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia). Eginkizun horretan lagundu nahi duten guztiei haiekin bat egiteko gonbitea luzatu diete. Donostian, larunbatean, erabakiko da Emakumeen Mundu Martxan Euskal Herrian eginen duen ibilbidea. Baina Sakanara ziurrenik irailaren 29an, astearte goizean iritsiko litzateke, Etxarri Aranatz eta Altsasun geldialdiak eginez.

Festarik festa

Udako festak baliatuko dituzte Emakumeen Mundu Martxaren etorrera iragartzeko. Herrietan photo callak eginen dituzte. Zerbait dinamikoa izatea nahi dute, horregatik, argazkien osagarrietako bat Mundu Martxaren furgoneta irudikatzen duen marrazki bat izanen da. Emakume guztiak aske izan arte martxan izanen direla adieraziko dute argazkietatik. Sakandarrak kamara aurrean jartzera animatu dituzte. Ibarrean lortutako argazki guztiakin irailean kartel handia eginen dute.

Martxa iritsi aurretik irailean lan handia eginen dela iragarri dute. Herrietan Emakumeen Mundu Martxaren berri ematen duen



Mundu Martxako antolakuntza parte hartzeko gonbitea luzatu dute.

hitzaldi zikloa antolatuko dute. Haiek antolatzen laguntza behar-

ko dutela aurreratu dute. Guztiak ere gogora ekarri dute martxaren

Harremanetarako

sakanakomundumartxa@gmail.com
Facebooken Altsasuko Bilgune Feminista eta Olazti Berdintasuna

Informazioa

Facebook-en Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxa

helburuetako bat emakumeen arteko sareak sortzea dela, behin martxan pasa ondoren mugimendu feminista indartsua sortzeko.

>> Altsasu

Altsasu Memoriak bere lanaren bigarren atala aurkeztu du

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Larunbatean Altsasu Memoria ekimenak Altsasuko errebaso historikoaren bigarren fasea aurkeztu zuen, 1950etik 1992ra bitarteko garaia barnebiltzen duena. Ekitaldia jendez mukurru bete zen Iortia areto handian ospatu zen. Emanaldiaren lehen zatian 1950etik Frankismoaren amaierara bitarteko urteak hartu ziren hizpide, besteak beste, FASAKo grebari, euskal folkloreaken jazarpenari, euskal sindikatuen sorrerari eta ikurrinen agerpenari aipamen eginez; bigarren zatian, bere aldetik, bertaratutakoei post-frankismoko egoeraren berri eman zitzaizkien, herrian gerra zikinak eta polizia-gehiegikeriek utzita-



Altsasu Memoriak, atzera ere, Iortia kultur gunea bete zuen.

ko ondorioak azalduz.

Gertakizunen kontaketa aurkezteko azalpenak eta garaian garai-ko zenbait protagonisten testigantzak tartekatuz eginen. Hortaz, landa, musikak eta dantzak ere izan

zuten bere tartea: ekitaldian parte hartuzuten Enrike Zelaiak-dantzari talde batek lagunduta, Zubi Ondo abesbatzak eta Arrebote taldeak. Horrela, oroimen historikoa giro paregabe batean landu zen.

SAKANA



Asun Fdz de Garaialde, Unai Hualde eta Esther Korres. NAFARROAKO PARLAMENTUAN

Hiru altsasuar Parlamentuan

Hualde Parlamentuko Mahaiko lehen presidente ordeizanen da

Ganbera osatzeko saioarekin Nafarroako Parlamentuaren IX. legegintzaldiari hasiera eman zion atzo. Kargua hartu duten 50 parlamentarioen artean hiru altsasuar daude: EH Bilduko Asun

Fernandez de Garaialde Lazkano Sala eta Esther Korres Bengoetxea eta Geroa Baiko Unai Hualde Iglesias. Azken hori lehen presidentente ordeia izanen da. Presidentea Ainhoa Aznarez Igarza (Ahal-Dugu) da.
+www.guaixe.eus

Presoen sakabanaketaren salaketa, irudiz eta hitzez

Gaur, ostirala, 19:00etan, Iortia kultur gunean Urruti vs Gertu dokumentalaren emanaldia eginen da. Ondoren Etxerat, Jaiki Hadi eta Mirentxin gidariak erakundeetako kideen hitzaldia izanen da

Altsasuko Sarek euskal preso politikoek bizi duten sakabanaketa politika salatuz ekitaldia eginen du gaur arratsaldean. Iortia kultur gunean Sakanako presoen senideen lekukotzak jasotzen dituen Urruti vs Gertu dokumentala emanen du kultur gunean. Hango ezkaratzean izen bereko erakusketa ikusgai izanen da eta, bukatzeko, Etxerat presoen senideen elkarterko, presoen osasunaz arduratzen den Jaiki Hadi elkarterko eta senideak espetxeetara furgonetetan eramaten dituzte Mirentxin gida-



Altsasuarrak gaurko dokumental emanaldira gonbidatu dituzte. UTZITAKOIA

riak elkarterko kideekin dispersio politikaren inguruko mahai-ingurua antolatu du.

Saretik azaldu dutenez, "preso politikoa eta iheslarien eskubide-

ak urtez urte urratuak izaten ari dira. Atxilotzen dituzten momentutik eskubideen urraketa sistematikoa da: inkomunikazioak, torturak, neurrigabeko fidantzak,

jipoiak, isolamendua..." Sarekideen iritziz "euskal preso politikoei bereziki ezartzen zaizkien salbuespen neurriek sufrimendu hau oraindik gehiago areagotzen dute. Bizi osoko kartzela zigorrak, gaxorik dauden presoak kartzelan mantentzea, dispertsioa..." Saretik gaixo dauden 11 presoen askatasuna aldarrikatu dute.

Sakabanaketari dagokionez, Saretik azaldu dute "psikologiko eta fisikoki presoak eta haren senideak txikitzen" dituela. Presoen senide eta lagunei "ezarritako zigor gehigarri bat ezartzen zaie, astebururo milaka kilometroko bidaia nekagarri eta arriskuetsuak egitera kondenatuz maite dutenarekin 40 minutu eskaseko bisita egitera doazenak". Sakabanaketaren ondorioz 16 senide eta lagun auto istripuetan hil direla gogorarazi dute Saretik. Familiendako sakabanaketak duen gastu ekonomikoa ere salatu du Sare Altsasuk.

Autoak harrapatutako bi haurrak hobe

Elkarrekin jolasean ari ziren zazpi urteko bi haur harrapatu zituen auto batek larunbatean, 13:24 aldera. Ferialdeko kalearen 25. zenbakia-aren parean izan zen ezbeharrak. Korrika atera ziren gidaria ustekabean hartuz. Bi haurretako bat helikopteroz eraman zuten ospitalera bi hantetan hezur hautsiak zituelako. Egunean bertan ebakuntza egin zioten. Bigarren haurrak kolpe ugariarekin eta hezur hautsirekin batekin ambulanzian eraman zuten ospitalera. Biak ere euren zaurietatik onera egiten ari dira. Bigarrena, astelehenetik, etxean da. Bestalde, Osasunbideako zuzendari kudeatzaileak ebazpen baten bidez Jose Manuel Calleja Pascual Altsasuko Osasun Eskualde Oinarritzko zuzendari izendatu du, Ana Maria Puig Arrastiaren ordez; hark ardura kentzea eskatu zuen.




GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1 Altsasu
argi@guaixe.eus



Nicanor Anso Urriza

Gogoak, kemena eta grina, ilusioa, indarra gure bidelagun dira. Ametsak etengabe berrituz, ezin gara gelditu azken geltokian...

Bere aldeko meza ekainaren 21ean, eguerdiko 12:00etan Bakaikuko elizan.

Zure familia

Nicanor Anso Urriza

(Karmele Anso Eguren Iñigo Aritza ikastolako irakaslearen aita)

Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.




Iñigo Aritza ikastolako guraso, ikasle eta langileak



Jose Ignacio Flores Berastegi

I. urteurrena

Gure bihotzean bizirik zaude.

Zure emaztea eta seme-alabak



Jose Ignacio Flores Berastegi

I. urteurrena

Zinena beti hiltzen da beste zerbaite izateko. Begi gogoan izanen zaitugu.


Zure anai-arrebak eta ilobak



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275
zorion@guaixe.eus



Juan Kruz Larrea Rubio "Kaskol"

II. urteurrena

Inoiz ez zaitugu ahaztuko.

Josune, Itsaso eta Oihan, Josune eta Xabier eta Valen izeba

Altsasun.



Jose Ignacio Flores Berastegi "AXIO"

I. urteurrena

Mila esker gure herriaren alde egindako lan guztiarengatik.



Ziordiko Udala

2015eko ekainaren 19an.

JAIOTZAK

- Julen Troyano Barriga, ekainaren 6an Altsasun.
- Enara Ganuza Rodriguez, ekainaren 10ean Olatzagutian.
- Karen Gastaminza Aldasoro, ekainaren 14an Olatzagutian.

Ezkontzak

- Mikel Galarza Maiza eta Patricia Fernandez de Garaialde y Lazkano Goikoetxea, ekainaren 13an Altsasun.
- Alain Senar Bakaikoa eta Sandra

Madinabeitia Gonzalez, ekainaren 13an Arbizun.

- Roberto Valbuena Ibañez eta Maria Mazizior Vicente, ekainaren 15ean Irurtzunen.

Heriotzak

- Lourdes Galarza Lizarraga, ekainaren 15ean Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



Lourdes Galarza Lizarraga

Maitasuna inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.

Zure familia

Urdiainen, ekainaren 15ean.



GRUPO
Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

Kirola >>

JAVIER GOIKOETXEA 3.A ETXOURIN: II. Etxauriko Bailara Rallyan Roland Holke pilotua eta Javier Goikoetxea kopilotua hirugarrenak izan ziren (Porsche 997 GT3, 29:05).

Arkaitz Irigoien eta Oier Larrañaga hamakagarrenak (Renault 11 Turbo, 30:04). Gari-koitx Goñi eta Ricardo Garriz erretiratu egin behar izan ziren (Renault Megane).

Triatloia

Asurabarrena eta Lakuntza Zarautzen

Proba 5 orduren bueltan osatu zuten

Larunbatean jokatu zen Zarauzko Triatloi ezaguna (2,9 km igerian, 81 km bizikletan eta 20 km korrikan). 548 triatletek lortu zuten proba despeditza Gustavo Rodriguez (4:02:11) eta Gurutze Frades (4:36:33) buruzirela. Sakana Triatloi Taldeko Isidro Asurabarrena 226.a izan zen (4:57:21) eta Mikel Lakuntza 369.a (5:18:41). Bestalde, igandean Donostiako Sprint Triatloia jokatu zen (750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrikan). Martin Ignazio Muller (1:07:10) eta Amaia Lopez (1:20:01) triatletak nagusitutako proban Juantxo Azurmendi 165.a sailkatu zen (1:28:58), 323 triatleten artean.

IMAZ ETA AZKARGORTA NAGUSI BASABURUAN

Larunbatean II. Basaburua Duatloia jokatu zen, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria. Aurrebenjaminetan Sakana Triatloi Taldeko Ekain Imazek irabazi zuen (3:58). Alain Razkin 3.a (4:10) eta Aitor Aldunate 8.a (5:14) izan ziren. Eta kadeteetan Sakana Triatloi Taldeko Fermin Azkargortak irabazi zuen (57:46).

Botxa

Txapeldunen ordua Irurtzunen

Bi multzotan banatuta hasierako ligaxkak jokatu eta gero, egunotan erabakiko da Iratxo Botxa Txapelketa.

Iratxoko finalak

Final laurdenak ostiralean 19:00etan: Tirillas / Jordano-Guillermo-Iñigo
20:15ean: Desesperados / AHTrikez
Final erdiak larunbatean 17:00etan: 1. finalerdia.
18:15ean: 2. finalerdia.
Finalak larunbatean 19:00etan: 3. eta 4. postuak.
20:30ean: Final handia eta sari banaketa.

Taekwondo

Bargagain: urte bikaina

Urte batean ikasleak bikoiztu ditu Bargagain Taekwondo Klubak eta oraindik ere gehiago handitu nahi dute. Teknikan eta borrokan emaitza bikainak lortu dituzte ikasleek

Urte batean panorama goitik behera aldatu da Altsasuko Bargagain Taekwondo eskolan. 2014an 24 ikasle trebatu ziren eta aurten 43 izan dira. Gainera, txapelketa eta lehiaketetan emaitza bikainak lortu dituzte altsasuarrek. "Klubean aldatu eta eman dira. Batetik, irakasle aldaketa eman zen eta bestetik gure lana erakusteko dinamika aldatu egin dugu: erakustaldiak egiten ditugu, herriko ikastetxeekin harremanetan jartzen ari gara taekwondo zer den azaltzeko, ikasleak izugarri inplikatu dira... beherakadaren ondoren gorakada heldu da eta oso kontentu gaude. Hala ere, handitzen jarraitu nahi dugu" adierazi dute Bargagain klubeko Beatriz Fernandezek eta Merche Lopezek.

Irakaslearekin kontentua

Oso kontentua daude Gerardo Montero Rivera irakaslearekin. Antonio Martinez Munchi lekukoa hartu zion Monterok duela bi urte. 29 urte ditu, gerriko beltza eta 4. dam-a. Zizur Nagusiko Ardoi klubeko kide, ikaslea eta irakaslea. Altsasun klaseak emateaz gain, Zizurren eta Mendillorriren ere aritzen da. Montero oso pozik dago Altsasuko ikasleekin. Urte bateko epean ikasleak bikoiztu dira.

Bargagain klubaren helburua kluba ezagutaraztea eta taekwondo zer den gizarteratzea da. Izan ere, taekwondo mundu bat da, bizitzeko modu bat. "Jendeak ez dezala pentsatu taekwondo soilik borroka dela. Askoz ere gehiago da. Gainontzeekiko errespetua sustatzen duen arte martziala da. Psikomotrizitatea, diziplina, errespetua, autonomia, osasuna... lantzen ditu, pertsonendako horren garrantzitsuak diren baloreak" adierazi dute klubeko ordezkariak.

Altsasun taekwondoaren bi alorrak lantzen dituzte: teknika eta borroka. Ikasle asko lehiaketa eta

Urrea, zilarra, brontzea...



Taekwondoan bi modalitateetan lehiatzen dira: teknikan eta borrokan. Teknikan Bargagaineko ikasleak emaitza bikainak izan dituzte Nafar Kirol Jolasetan. Aaron Agirretxe kadeteak urrezko domina jantzi zuen. Oihane Palomares juniorrak urrezko domina eta Joel Agirretxe kadeteak brontzeko domina. Borrokan Nafar Kirol Jolasetan ere emaitzak txalotzekoak dira. Aaron Rodrigex kadeteak zilarrezko domina lortu zuen, Aaron Agirretxe kadeteak urrezkoa, Erkuden Moreno haurrak urrezkoa, Ane Gil kadeteak urrezkoa, Patxi Bergera kadeteak urrezkoa, Mohamed Essobai kadeteak brontzekoa, Sheila Vidarte juniorrak brontzekoak, Oihane Palomares juniorrak zilarrezkoa eta Lidia Martin seniorrak brontzekoa. Horretaz gain, Gasteizko Torneoan, borrokan, Aaron Agirretxek, Erkuden Morenok, Ane Gilek eta Patxi Bergerak urrezko domina jantzi zuten, Aaron Rodrigexek eta Oihane Palomares zilarrezkoa eta Mohamed Essobai eta Lidia Martinek brontzekoa. Joel Agirretxe kadeteak ere maila bikaina eman zuen. Bestalde, Iruñean jokaturako 21 urtez azpiko Espainiako Txapelketan Sheila Vidarte eta Oihane Palomares juniorrek zilarrezko domina lortu zuten eta Lidia Martin seniorrak brontzekoa. Eta Espainiako Nazioarteko Opean Oihane Palomares aritu zen eta final laurdenetara sailkatu zen. Igandean Bargagaingo ikasleak erakustaldi arrakastatsua egin zuten Altsasuko Zelandi kiroldegian. Ikasturte amaiera bikaina izan zen.

torneoetan aritzen dira, baina beste batzuk ez. Norbanakoaren aukera da hori. Lehiaketetan aritzen diren asko modu sakonagoan prestatzeko larunbatetan Zizurko Ardoi klubera doaz, bertan Gerardo Montero irakaslearekin eta Ardoiko Maria Angeles Urmeneta Nafarroako Taekwondoko presidentearekin gehiago sakontzera.

Adin guztiak

Taekwondoak ez du adinik eta taekwondo ezagutzeko gonbitea egin dute Bargagain taldekoek. Egun adinka banatuta ematen dira klaseak, baina badago nagusien taldea ere, egun 16 urtetik 44 urtera bitarteko kideak osatutakoa. "Taldea anitza da. Batzuk hasi berriak, beste batzuk taekwondoarekin jarraitu nahi dutenak, denetatik. Guk 15 eguneko proba eskaintzen dugu. Nahi duena hurbildu dadi-

la, taekwondo ezagutu dezala eta gustatzen bazaio izena eman dezala edo bestela ez" adierazi dute Fernandezek eta Lopezek.

Izen ematea

2015-2016 ikasturtea irailaren 17an hasiko da. Ikasle berriak, aldiz, urrian batuko dira. Klaseak asteartetan eta ostegunetan ematen dira, arratsalde, Lavaderon. Egutero 3 ordu eskaintzen dira, baina izena ematearen arabera lau ordura zabaltzea aurreikusten ari dira. Ekaineko izena ematea ongi joan da eta 41 neska-mutikok eman dute izena. Nagusien klasearekin eta beste 60ra heltzea espero dute. Baina oraindik ere izena eman daiteke. Irailean kirol eskoletan izena emateko aukera egongo da 012aren bidez, edo bestela zuzenean Bargagain klubera hots egin daiteke (625 883 135, Beatriz).

Pilota

Ezkurdiak Retegi Bi aurkari Eibarren

San Ferminetako lau t'erdiko final laurdena asteazkenean jokatu da

San Ferminetako lau t'erdia Altsasun abiatu zen. Joseba Ezkurdiak 22-15 irabazi zion Jon Jaunarenari. Nahiz eta hasieratik arduz arduratu, leitzarra etsai duina izan zen. Ezkurdiak 6 tanto egin zituen sakez. Final laurdenetan Ezkurdiak Retegi Biren kontra jokatu du San Juan egunean, 17:00etan, Eibarren.

Olaztin txapelketako 7. jardunaldia jokoan

Asteburuko partidak

Ostiralean, 20:00etan:

4 ½: Eneriz / Berat

2. maila: Ansotegi-Joa / Eneriz-Borrega

1. maila: Iurgi-Javier / Loban-Arbizu

22 urtez azpikoak: Iturbe-Urrejola / Arrasate-Bikuña

Larunbatean, 17:00etan

3. maila:

Peral-Peral / Mendoza-Mendoza

Jokin-Muñoa / Pleito-Ondatz

1. maila: Martinez-Flores / Aiestaran-Vazquez

Arbizu Goizuetaren kontra ariko da gaur

Nafarroako Herrien Arteko Pilota Txapelketako 2. mailako 7. jardunaldian gaur, ostiralean, Arbizu Goizuetaren kontra ariko da, 18:00etan.

Herrien Arteko 6. jardunaldiko emaitzak

Arbizu 1 / Esteribar 3
Kimuak: Gorrotxategi-Imaz (Arbizu) 14 / Lazkoz-Murillo (Esteribar) 18
Haurrak: Olaetxea-Petriati (Arbizu) 3 / Betelu-Maia (Esteribar) 18
Gazteak: Goikoetxea-Flores (Arbizu) 16 / Gil-Sanchez (Esteribar) 22
Seniorrak: Arruti-Agirre (Arbizu) 22 / Santesteban-Iriarte (Esteribar) 21

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAI 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI

948 468 755



ETXARRI

948 461 660

Mendia

Besabi-Arano Sakanako Mendizaleekin

Igandean 6:00etan abiatuko da autobusa Olaztitik

Igandean Sakanako Mendizaleak taldeak mendia ibilbidea antolatuko du. Besabitik abiatuta Aranora joatea da helburua, mendia buelta ederra eginez. Nafarroa eta Gipuzkoa batu-ko dituzte, Adarra mendigunetik. Autobusa goizeko 6:00etan abiatuko da, igandean, Olaztitik. Sakanako herrietan geldialdiak egingo ditu izena eman dutenak hartzeko.

IZENA EMATEKO

Ohiko tokietan, ostegunabaino lehen. Ondoren, 639 117 631 telefonon.

Pala

Aristorena eta Ruiz Euskal Herriko txapeldunak

Asteburuan Euskal Herriko klubuen arteko Trinkete Txapelketako final jokatu dira. Yanira Aristorenak eta Marite Ruiz de Larramendik (Oberena) emakumezkoen paleta argentinarreko finala irabazi zuten, senior mailan.



Mendi txirrindularitza

451 bikerren gozatu ederra

Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako 20. Altsasu BTT Zeharkaldia primeran joan zen

Bizikleta hartu eta goiz bikainaz disfrutatu zuten 20. Altsasu BTT Zeharkaldian izena eman zuten 451 bikerrek. Barranka Txirrindulari Taldeak antolatu zuen proba ez lehiakorra. Aurten, lehenengoz, bi ibilbide prestatu zituzten, 45 km eta 805 metroko desnibela zuen ibilbide luzea eta 28 km eta 482 metroko desnibela zuen ibilbide motza. %80ak ibilbide luzea egitea aukeratu zuten eta eguraldi bikaina lagun-ibilbideak iraun bitartean ez zuten euririk egin-bizikleta festa ederraz gozatu zuten guztiak.

Altsasuko alkate berri Javier Ollok egin zuen hasierako zinta moztea. Bikerrek Beikolarretik Sorozarretara jo zuten, bertan buelta hartu eta Zapartidik aurrera egiteko. Olazti eta Ziordia hartuko Batueko iturria gaindituta, Ziordiraino jaitsi ziren. Han zegoen hornidura gune nagusia, Txipudi ederrean. Olaztin banatu ziren bi ibilbideak. Ibilbide motza hautatu zutenek Altsasuko Foru plazako helmugara jo zuten. Aldiz, ibilbide luzeak Urdiain, Iturmendietan Bakaikuraino jarraitu zuten. Guerra Hermanos fabrikatik



Beste behin ibilbidea izugarri gustatu zitzaizen txirrindulariei.

aurrera eginez eta mendian buelta bat eman eta gero, Urdaingo igerilekuetatik Basoixira sartu ziren bikerrak, Otadiko Kristo Deunatik Altsasuko Foru Plaza-ara heltzeko.

Helmugan opari andana jaso zuten bikerrek: kirol kamiseta, Laket txistorra, Katealde pateak, Lacturale esnea, Agrozumos eteko produktua eta Galius eguzkitako krema. Horretaz gain, 60 sari zozketatu ziren eta biker guztiak garagarriaren 27an Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako duen V. Sakana Burunda zikloturista martxan parte hartzeko 10

euroko deskontu bonoa jaso zuten, transferigarria den bonoa.

Ibilbide ederra

“Gurea Nafarroako probetan zaharrena da, askoren egutegian finkatuta dagoena. Eta ederra. Ingurune pribilegiatua dugu, urtero ibilbide aldaketak egitea ahalbideratzen diguna” nabarmendu zuten Barrankako kide eta probako arduradun Julian Claverrek. Iritzi berekoak ziren bikerrak, eta antolakuntza ona eta ibilbidearen edertasuna nabarmendu zuten. Guztia ongi ateratzeko 100 pertsona inguru aritu ziren lanean.

Pilota

Tuterarrak eta lakuntzarrak elkarrekin



Lakuntzako eta Tuterako pilotari txikiak, Jon Ander Albisurekin eta bi eskoletako ordezkariekin. JESUS BARADO OCAÑA.

Pilota denboraldiari amaiera emateko, Lakuntza Pilota Elkarteko eta Tuterako Eraso Pilota Elkarteko pilota topaketa antolatu zen igandean Lakuntzan. Guztira 30 pilota-

ri bildu ziren, eta bi klubetako pilotariak nahasita, bikoteka hainbat pilota partida jokatu ziren, aurrebenjamin mailatik hasita kadete mailara arte, giro paregabea. Pilo-

tari guztiak domina jaso zuten Jon Ander Albisu pilotariaren eta Lakuntzako alkate berri Patxi Xabier Razkin alkatearen eskuetik. Bazkaria ez zen falta izan.

Txirrindularitza

Emakumeen Bira Iturmendin



Txirrindulari emakume onenak gurean izan dira, Emakumeen Bira hirugarren etapa, larunbatekoa, Iturmendin despiditu baitzen. Etapa Boels Dolman taldeko Chantal Blaak holandarrak irabazi zuen, Lotto-Sudal taldeko Elena Cecchini italiarrari segundobat eta Orica taldeko Katrin Garfooti 3 segundobaterata. Emakumeen Bira 20 urteko Katarzyna Niewiadoma poloniarrek irabazi du.

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermiheta kalea 4 • 948 567 331
LAKUNTZA

LONBREN denda
Zure eguneroko denda

Aliprox

ONGI BILI SAN JUANETANI

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia • ARBIZU



Nonerabili

NORTE ERLOJUDENDA

ALTSASU

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK

LAKUNTZA

50 €ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

URREZKOA BITXIDENDA

IRURTZUN

Bitxietan 100 €ko erosketarekin, %10eko deskontua.

ETXARRI KOMERTZIALA

ETXARRI ARANATZ
%10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGOA TABERNA

ALTSASU

Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA

ALTSASU

%5eko deskontua zerbitzu guztietan

PINPILINPAUSA

ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bate bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU

IRUÑEA

Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER

OLAZTI

Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketetan etxeko produktua doan.

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerrrenda osoa ikusgai

Mendi lasterketak

Lakuntza-Aralarren Oria eta Fernandez nagusi



Lakuntza-Aralarreko podiuma, txapeldunak eta lehen sakandarrak artean.

Beñat Katarain eta Izaskun Beunza izan ziren lehen sakandarrak

148 korrikalarik hartu zuten irteera 12. Lakuntza-Aralar mendi lasterketan (24,7 km). Aurten lasterketak ez zuen Nafarroako Zirkuiturako eta Euskadiko Koparako puntuatzen. Korrikalariak Atazarko igoeratik abiatu ziren, Guardetxe (1.035m), Mugerdi, Belokiko lepoa (1.205 m), Unako putzu eta Hirumugarrieta (1.431 m) gainditu zituzten, buelta hartu eta Desako borda eta Pagomaritik (1.140 m) pasa eta Lakuntzara Aranguko portutik jaisteko. Eguraldi bikaina izan zuten lagun.

130 korrikalarik osatu zuten proba. Unai Oria gaztea izan zen azkarrena helmugan (2:04:01). Zaldibiko gazteak minutu bat eta 19

segundo atera zizkion Aritz Kortabarría arrasatearrari (2:05:20). Axier Alonso oñatiarrak osatu zuen podiuma (2:06:20). Hasieratik hirukote honek hartu zuen aurrea, baina Hirumugarrieta igotzen Alonso atzean geratu zen. "Azken 6 km-etan Kortabarría erritmoa mantsotu du eta nik erritmoari eutsi ahal izan diot" azaldu zuen 21 urteko Unai Oria txapeldunak. Lehen sakandarra Beñat Katarain lakuntzarra izan zen, helmugara 6. postuan iritsi eta gero (2:11:16). Emakumezkoetan 17 urteko Leire Fernandezek irabazi zuen (2:29:02). 7 segundora sartu zen Alizia Olazabal beterano irundarra (2:29:09). Eta Izaskun Beunza olaztiarra izan zen hirugarrena eta lehen sakandarra (2:43:01), irabazlearengatik ia

Sakandarrak Lakuntza-Aralar mendi lasterketan:

Gizonezkoak

1. Unai Oria	2:04:01
6. Beñat Katarain	2:11:16
9. Alberto Martinez	2:13:13
11. Juanjo Goikoetxea	2:15:18
14. Xoxeja Maiza	2:19:10
17. Juanjo Armendariz	2:22:14
19. Mikel Rubio	2:23:56
25. Javier Borrega	2:25:41
28. Mikel Satrustegi	2:27:24
32. Fran Araña	2:31:16
34. Adur Senar	2:32:10
45. Aritz Pellejero	2:39:57
51. Xabier Beraza	2:41:56
56. Migel Angel Asurabarrena	2:43:47
59. Alberto Anton	2:46:29
60. Jose Esteban Gerendiain	2:47:38
61. Xabier Aizpun	2:47:39
62. Jose Xabier Beregaña	2:48:51
75. Migel Angel Ubeda	2:54:11
76. Esteban Tejedor	2:54:11
77. Egoitz Carrion	2:54:12
92. Iban Verdugo	3:04:11

Emakumezkoak

1. Leire Fernandez	2:29:02
3. Izaskun Beunza	2:43:01
5. Maite Beregaña	2:47:37
8. Maria Goikoetxea	3:04:11
9. Ainara Martin	3:06:40

14 minutura. Emakumeen garai-pena eztabaidagarria izan zen, Alizia Olazabal bigarrenak adierazi zuelako Leire Fernandezek horniduran kanpoko laguntza jaso zuela eta lasterketaren tarte bat lagunduta egin zuela. Olazabalek aipatu zuen ordura arte lehendabiziko postuan zegoela bera. Aldiz, Fernandezek adierazi zuen hornidura baino 25 m lehenago eta 25 m ondoren izan zuela laguntza, eta hori baimenduta dagoela.

Gazte-gazteak

Korrikalarien gaztetasuna, hori izan zen komentario nagusienetakoa. Duela urte batzuk beterano-

Hurrena, II. Triku Traila

Sakanako hurrengo mendi lasterketa ekainaren 28an Etxarri Aranatzen jokatu den II. Triku Trail mendi lasterketa izan da (21 km, 1.400 m desnibel+). Dagoeneko 258 korrikalari daude izena emanda eta 350 parte-hartzaileendako tokia dago. Izena ematea zabalik www.kirolprobak.com gunean.

ak ziren aurrean zeudenak, baina egun gazteek hartu dute lekukoa. Izan ere, Alizia Olazabal beteranoaz kanpo, podiumeko gainontzeko gizon-emakumezkoak gazte-gazteak ziren. Unai Oria txapeldunak 21 urte ditu eta 18 urtera ez zen iristen Leire Fernandez.

"Duela bi urte parte hartu nuen, baina junior mailan. Ibilbide luzea egiten nuen lehen aldian zen hau. Ibilbidea bikain zegoen, behean lohia baina goian ongi. Espeziala eta ederra. Pozik nago" adierazi zuen Leire Fernandezek. Iritzi berekoa zen Beñat Katarain lakuntzarra, probako lehen sakandarra. "Eguraldia behar den bezala zegoen, eta mendia ere bai, lokatzarekin. Hori bai, nahi baino gutxiago" zioen. Alberto Martinez lakuntzarrendako bere lehenengo mendiko lasterketa izan zen eta emaitza bikaina lortu zuen, bederatzigarrena. "Mendian lehenengo lasterketa izan da hau eta oso pozik nago. Asfaltotik nator, eta hau askoz ere gogorragoa da" zioen.

Korrikalariak masajea hartzeko aukera izan zuten Surya masaje eskolako kideen eskutik. Eta plazan auzate ederra izan zuten. Korrikalari guztiek kamiseta eta opari sorta jasoz zuten eta saritutakoek dirua eta trofeoak. Guztia ongi ateratzeko 80 pertsona inguru aritu ziren lanean.

Areto futbola



Lakuntzako Parkea Martxan txapelketan izena ematea zabalik

Lakuntzako Parkea Martxan taldeak I. Parkea Martxan Areto Futbol Txapelketa antolatu du. Taldeak 5 kidez osatuta egongo dira, atezain bat eta 4 futbolari. Gutxienean adina 15 urtekoa da. Talde bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu. Txapelketa ekainaren 27an hasiko da eta Lakuntzako festetan bukatu. Partidak 18 minutuko bi zati izanenditu, eta tartean 8 minutuko atsedenaldia egonen da. Partidak ostiraletan eta larunbatetan jokatu dira, arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara. Lehenengo lau sailkatuek finalak jokatu dituzte Lakuntzako festetako txupinazo egunean, 10:00etatik 12:00etara. Txapeldunak, txapeldunordeak eta hirugarrenek trofeoa jasoko dute eta, horretaz gain, futbolari onena, atezain onena eta talde errebelazioa aukeratu dira.

IZENA EMATEKO

Izena emateko inprimakia Facebookeko Parkea Martxan Txapelketa helbidean dago. Inprimakia bete eta bidali behar da.



Txirrindularitza

Burundakoak, erlojuaren kontrako onenak



Ailetz Lasa, Paula Suarez eta Maialen eta Eneko Aramendia, Nafarroako txapeldunak.

Igandean III. Iturmendi Erlojupeko Trofeoak jokatu zuten, kadeteen eta juniorren Nafarroako Erlojupeko Txapelketa. Kadete gizonzkoetan 50 txirrindulari aritu ziren eta Quesos Albenizeko Ailetz Lasa izan zen azkarrena (13:56), bere taldekide Iosu Etxeberriari eta Hodei Ziari 11 eta 17 segundo aterata. Emakumezkoetan 7 lehiatu ziren. Maialen Aramendiak (Caf) ez zuen jaioterrian huts egin eta erraz gailenduz (15:10), bera bezala Burundako



da klubean trebatutako Bakarne Gonzalez 1:35 aterata. Juniorretan aritutako 55 txirrindularien artean Q. Albenizeko Eneko Aramendia

Sakandarrak Nafarroako Erlojupekoan:

Kadete gizonzkoak:

1. Ailetz Lasa (Q. Albeniz)	13:56
2. Iosu Etxeberria (Q.A.)	14:07
3. Hodei Zia (Q.A.)	14:13
9. Oihan Vinagre (Q.A.)	14:39
14. Ander Rosado (I. Irabia)	14:54
25. Josu Jaka (Q.A.)	15:29
37. Imanol Galarza (I.I.)	16:32
39. Iker Cerviño (I.I.)	16:44
40. Beñat Etxezarreta (I.I.)	16:47
48. Raul Granada (I.I.)	18:08

Kadete emakumezkoak:

1. Maialen Aramendia (Caf)	15:10
2. Bakarne Gonzalez (Rural K.)	16:45

Juniorrak gizonzkoak

1. Eneko Aramendia (Q.A.)	17:11
5. Asier Etxeberria (Q.A.)	18:24
16. Aritz Irigoien (Q.A.)	19:55
21. Juan Alberto Jimenez (Q.A.)	20:15
22. Gorka Arbizu (I.I.)	20:17
23. Alex Unzilla (Q.A.)	20:37
28. Izai Mauleon (I.I.)	20:52
43. Nestor Baroja (I.I.)	22:04
45. Javier Lopez (I.I.)	22:10

Juniorrak emakumezkoak:

1. Paula Suarez (Sopela)	22:16
--------------------------	-------

iturmendiarra izan zen azkarrena. Asier Etxeberria 5.a sailkatu zen, juniorren lehen urteko lehena.

Mendi lasterketak

Araia: Alatz Agirre bederatzigarrena

Larunbatean I. Mitxarro Bira jokatu zen Araian (21,6 km). Iñigo Alzolak irabazitako proban (1:44:32), makina bat sakandar lehiatu ziren eta horien artean Alatz Agirre izan zen azkarrena, helmugara 9.a iritsita (1:54:15). Tartean, Alberto Razkin 12.a sailkatu zen (1:57:04), Xabier Zabalza 32.a (2:16:31), Sergio Goñi 34.a (2:16:57), Fermin Zornoza 48.a (2:25:30), Juanjo Otsoa 51.a (2:25:57), Aitor Salinas 57.a (2:32:11), Joseba Gorritxo 58.a (2:32:56), Asier Leiza 59.a (2:33:10) eta Iurgi Flores 62.a (2:35:24).

SALGADO ETA OROZ TOLOSALDEKO 3 TONTORRETAN

Larunbatean Tolosaldeko 3 Tontorretan mendi maratonia jokatu zen Tolosan (42 km, 2.800 desnibela). Probagorrian Hassan Ait Chaou gailendu zen (4:08:31). Joxan Salgado 182.a sailkatu zen (6:18:10) eta David Oroz 245.a (6:46:17).

Koxkak ezin izan du Espainiako erreplikatu

2014an Areto Futboleko Kluben Espainiako Txapelketa irabazi zuen Altsasuko Koxka taberna taldeak Guadalajaran. Europako Txapelketa jokatzeko txartela lortu zuten altsasuarreketa maiatzean Europako txapeldunordeak izan ziren. Aurten ere Areto Futboleko Kluben Espainiako Txapelketa aritu dira Migel Barrero eta Jose Ramon Ramirezek entrenatzen dituzten mutilak. Asteburuan 2015eko Espainiako Txapelketako bukaerako fasea jokatu zen Cartagenan, eta, tamalez, Espainiako txapeldunak ezin izan du titulua berri-itu. Hasierako taldeen arteko fasea gainditu zuen Koxkak, A multzoko bigarrenak sailkatu baitziren, Polaris Febrili 4 eta 1 irabazi eta Salvador Artesanoren kontra hiruna eta Muriaren kontra bina berdindu eta gero. Baina final laurdenetan Sanix Asadortaldearen kontra 3 eta 8 erori ziren altsasuarrek. Sanix Asador da Espainiako txapeldun berria.

BATUKADA IKASTAROA IRURTZUNEN: Hilarne 25ean eta 30ean, eta garilaren 2an eskolako gimnasioan eta patioan. Dohainik. Izen ematea kultur etxean edo 948 600 412 telefonoan.

bazterretik

Jose Luis Asensio

«El árabe del futuro»

El árabe del futuro komikiak (Riad Sattouf; Salamandra Graphics) Angoulemeko saria jaso du aurten. Azken urteetan han sari-tutakoen osagai guztiak ditu. Beste zenbait sari garrantzitsu ere jaso ditu, eta 200.000 aletik gora saldu ditu Frantzian. Satrapi-ren ildotik jarraituz, egileak bere txikitako biografia eskaintzen digu liburuan. Zatika hori bai, eta orain bigarren alea argitaratu arren, nik, lehenengoz ariko naiz, Riaden gurasoak ezagutzen direnetik, 6 urte bete zituen arte gutxi gorabehera. Bertan, inuxenteki baina gauzak gordinki azalduz, Siria eta Libiako gizarteak aztertzen ditu.

Riad txikia, bere aita Siriakoa izan arren, ama frantsesak oparitutako aingeru itsurako ilehori luzeaz baliatuta, mundu guztia zuen liluratuta Frantzian. Bere gurasoak, Libiara aldatzea erabaki zuten arte. Kontakizun guztian zehar, Riaden aita agertzen zaigu erabaki guztiak hartzen dituen pertsona bezala. Ez dakit bere haur ikuspuntua dela eta izango den, baina arraroa egiten zait bere ama deskribatzeko modua, oso isila eta senarraren erabakiak eztabaidatu gabe. Egilearen haurtzarora aitzakia hartuta, Gadafiren lehen urteetako gobernuari buruz idaztenda, haur batek duen ikuspuntutik eta gertatzen diren egoera gordinak marraztuz. Arazorik egongo ez balitz bezala baina, aldi berean, ezintasun gogorak deskribatuz janaria lortzeko edo etxebizitza babesteko. Aitaren Gadafirekiko zaletasunagarbi gertatzena, nahiz eta Raidek bizitzeko modu hura gustuko ez izan.

Egoerak bultzatuta, azkenean Sirian bukatzen dute, aitaren jaioterrian, Frantziatik noizbehinka pasa ondoren. Siriako gizartea eta egoera soziala deskribatzen dira liburuen bigarren zatian. Baina Frantzia du beti buruan Raidek, bere gustuko herrialdea bezala. Frantziatik alde egin behar duten bakoitzean, triste eta beldurrez egiten dute. Oso interesgarriak dira familia arteko harremanak, haurren eta helduen izateko modua, legedian dauden trikimailuak zenbait gauza saihesteko...

Ikuspuntu interesgarria mundu arabiarra ezagutzeko, egun ditugun informazio iturrietatik ezberdina eta zuzena, bertan bizi izan den haur baten eskutik. Osorik: www.guaixe.eus

Azken bi astetan, IGO

Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) egitasmoa bi aste barru despidituko da, hilaren 30ean. Liburutegi publikora joan eta euskarazko liburu bat maileguan hartu eta irakurtzera gonbidatu

tzen gaituzte. Behin irakurrita liburutegian iritzia emanez fitxa labur bat bete behar da eta horren truke liburuazainak liburuak erosteko %25eko deskontu txartela emanen dio irakurleari. Deskontu

tua %50ekoa izanen da Mintzaki-de programako kide eta euskara elkarteetako kideendako (Aizpea edo Bierrik). Txartel horrekin Martxueta (Irurtzun), Beriain (Arbizu), Kaxeta (Etxarri Arantz), Arkatz eta Liburunda (Altsasu) liburu-dendetan liburuak merkeago erosteko aukera izanen dute.



Olatzagutia koadrotan jasota



gandean jokatu zen VII. Olatzagutiko Pintura Azkarreko Lehia-ketak iruindar bat izan zuen irabazle helduen mailan: Felix Flamarique Martinez. Ornako bidetik San Frantzisko Javier kaleko etxeren eta elizaren ikuspegi batek eman zion saria (500 euro). Bigarrena (250 euro) Lizarrara eramanez M^a Ines Urrak. Helduen mailako herrikoarendako saria (200 euro) Iban Lopez de Goikoe-txea Galanek eskuratu zuen.

Gazte maila Ane Urzelai Olabideri eman zion saria epaimahaiak. Maila berean, herriko margolari gaztearen saria Naroa Garcia Aristurendako izan zen. Bakoitzak 150 euroko balioa duen arte plastikoko materiala jaso zuten. Haurren mailan, azkenik, Naroa Otxoarrarte San Gilendako izan zen lehen saria; Maren Arrizabalaga Otxoarrarterendako bigarrena eta podiuma Haran Trevejo Lopez de Goikoe-txeak osatu zuen. Arte plastikorako material lote bana eskuratu zuten.

Txapeldunaren pare



Urdiaingo Eskolako LHko 6. mailako ikasleak ostiralean Julio Soto Ezkurdia bertsolariaren bisita izan zuten. Klasean harekin izan eta gero Kaluxa tabernara jozuten denek. Sotorekin batera, ikasleek bertso saioa eskaini

zuten. Urdiaingo eskolakoek Josema Leitzarekin batera prestatutako bertso bakoitzeko Julio beste bat botatzen zuten. Trikitixa eta gitarrekin lagunduta eskaini zituzten bertsoak. Gainera, Hiru txerri txoen ipuina bertsoan kontatu eta

Kulturilleko bertso afaria bihar

Eneko Lazkoz eta Julio Soto larunbatean, 22:00etan Lakuntzako Pertza elkarte.

Nafarroako Bertsolari Txapelketako irabazlea eta finalista bat izanen dira bihar Lakuntzan bertsoan. Julio Soto eta Eneko Lazkoz etxarriarra izanen dira aitari ondorengo bertsoekin Lakuntzako Pertza elkarte girotuko dutenak.

antzeztu zuten. Bertsoak tabernako pantailan proiektatu zituzten. Bertso saioak Urdiaingo eskolako ikasle guztiak, Iturmendiko LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleak, gurasoak eta urdiaindarrak erakarri zituen eta gustura ateraz irendenak.

Urteurrenerako musika

Trio Veracruz eta Andoni Sarobe larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean, Trasteandoren urteurrena dela eta

Trasteando taldeak 10 urte bete dituela eta hori musika bidez ospatzen ari da. Ilbeltzaren 24an Iruñeko Sacalfi taldea kontzertua ematera gonbidatu bazuen, bihar, berriz, gonbidatu izanen ditu: Trio Vera Cruz eta Andoni Sarobe. Hirukoteak Hego Amerikako doinuak (bole-roak Mexikoko doinuak...) eskainiko ditu. Gaiarreko edo Baluarteko eszenatokietan maiz arituz den baritonoak, berriz, zarzuela zatiak eta bestelako sorpresak



eskaintzea espero da. Jaialdiari hasiera, hala ere, Trasteandok emanen dio, giroa berotu eta besteak aurkezteko. Kontzertu akabera denak eszenatoki gainean daudela despidituko da.

Trasteandoko kideak aurten oraindik zurren beste bisitaren bat hartuko dute: Legazpiko Alaitasuna Errondaila. Festetan ere zerbait egingen dutela aurreratu digute eta Eguberriaren antolatzen duten elkartasun jaialdia berezia izatea nahiko lukete.

Musika soziala

Trasteandoren DNA hori da. Horregatik, urtero moduan eta dagoeneko 15 dira, Josefina Arregi klinikari eta Aita Barandiaran adinduen egoitzan kontzertuak emanen dituzte gaur arratsaldean. Urteko bi hitzorduetako bat da, bestea eguberrietan dute.

Zubiñdo arraindegia
Ongi pasa festetan!
ZUBIÑDO ARRAINDEGIA
948 461 852
Fernando Urkia 1 · Arbizu
www.zubiñdoarraindegia.com

karrika taberna
Bokatak
Plater konbinatuak
Kaxuelitak
948 46 21 37

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izan bat du
Txistor ekologikoa
Ongi Pasa festak!
Uztuzar industriak - Rf. - Faxa: 948 460 499

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 20%	euria: 8%	euria: 5%	euria: 13%	euria: 18%	euria: 25%	euria: 53%	
Min: 11 Max: 17	Min: 11 Max: 21	Min: 10 Max: 24	Min: 12 Max: 24	Min: 13 Max: 25	Min: 13 Max: 22	Min: 12 Max: 21	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	24	11	19.3
Etxarri A.	22.9	8.7	41.9
Altsasu	21.5	10	21.1
Aralar	14.7	5.6	34.4
Urbasa	20.4	8.9	28.5

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	24	2	8	16

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

Ekain berri

BOBBIOTIA - SAN DEABATIAN

AQVARIVM

Artium

CAMPING ARTAZA

gaztezulo

>> 11 galdera

Aritz Munarriz eta Mikel Mundiñano

Larunbateko Dispertsioaren Kontrako Erronka

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu



Festa hotsa heldu da!!

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

Festa programak diseinatu eta inprimatzen ditugu

%5eko deskontua Bierrik Fundazioko bazkideei

1. Aritz larunbatean dispertsioaren kontrako erronka: 12 orduz jarraian Etxarriko Hartzabal dermiora igoerak egingen dituzu. Zergatik?

Mendian korrika hasi nintzenean Hartzabalen hasi nintzen. Txoko horrengatik beti sentitu dut zerbait berezia. Gorputzaren limiteak opaztea gustatzen zaigu eta beti izan dut nire buruaren kontra erronka bat egiteko ideia. Ikusita presoen dispertsioaren aferan egoera larria dela, izan ere lagun bezala espetxetara joatea tokatzen zait, barrenak eskatzen zidan zerbait egitea eta horrela sortu da erronka.

2. Egun kirolariak konpromisoak hartzeko joera gehiago duzue?

Aritz: Nik kirolaren aukera hori baliatu dut konpromiso bat hartzeko. Kirolatik elkartzasuna adierazi daiteke; nire kasuan menditik.

3. Larunbateko erronka gogorra da, baina presoen senideen eguneroko erronkak, gehiago.

Mikel: Proiektuarekin Sarera etorri zenean Aritzek hori zuen buruan. Berak egin behar duen aldapa pila igotzearen erronka erabat lotuta dago senideek gainean duten dispertsioaren zamarekin. Etxarrin 7 preso ditugu eta senideek astebururo kilometro pilo bate giten dituzte eurak bisitatzeko, horrek daukan arriskuekin eta kostuekin.

4. Nola antolatu duzue erronka?

Mikel: Larunbatean goizeko 7:00etan hasi eta arratsaldeko zazpietarikoa Hartzabalengora eta behera arikoda Aritz. Magalean, biltegi zaharreko inguru horretan 0 gunea

prestatu dugu. Han bilduko da jendea, Aritz eta hari lagunduko dioten kirolari eta herritarrei babesa emateko. Karpa jarriko da, barra txiki bat, musika pixka bat... giroa sortuko da. Bestalde, udaletxeko estalopean proiektore antzeko bat jarriko dugu eta mendian dagoen jendeak bidalitako irudiak eta argazkiak han proiektatuko dira. Kronometroa martxan egongo da, eta Aritzek buelta bat ematen duen bakoitzean sutziriak jaurtikiko dira. Ekimena despeditzerakoan, herrira heltzerakoan, eskerrak emateko eta senideei eta presoei aipamen berezia egiteko ekitaldia egingenda.

5. Aritz, ez zara bakarrik egongo. Igoera bakoitzean alboan jendea izango duzu. Zerrenda luzea da.

Aritz: Igoeran laguntzeaz gain, eurek ere dispertsioaren kontrako atxikimendua adieraziko dute. Ondokoak dira: Aitor Zubieta pilotaria, Imanol Goñi, Aitziber Ibarbia, Uxua Irigoien, Joanes Goitisol, Nouredin, Fiti, Ainhoa Lendinez, Javi Dominguez eta Xabier Zarranz mendi korrikalariak, Sakana Bizirik mendi taldeko kideak, Gorka Verdugo txirrindulari ohia, Peio Martinez de Eulate eta Oskar Lasa pilotari ohiak, Yanira Aristorena eta Maite Ruiz palistak, Ekaitz Maiz, Alex Txikon eta Gorka Karapeto eskalatazailak, Goizeder Beltza aizkolaria, Etxarri Futbol Taldekoak, Mikel Navarro eskalatazaila, koadrilakoak...

Mikel: Eta nahi duten sakandar guztiak gehitu daitezke Aritz laguntzera eta dispertsioaren kontrako bere konpromisoa adieraztera. 0 guneke zerrendan izena eman eta

sinatu beharko da. Ahalik eta konpromiso gehienak lortu nahi dira.

6. Horrenbeste jende ondoan egoteak ez dizu trabarik egingo?

Ez, indarra emango dit. Sakanatik jende asko etorriko da. Erronkaren zergatiak gehiago motibatzen nau eta ilusio asko ematen dit.

7. Gauza txikia behar zuena nola handitu den!

Aritz: Bai, ez nuen espero, baina ongi dago. Gauza polita izango da eta oihartzuna izango duena, dispertsioaren egoera zabaltzeko.

8. Aritz, Hartzabalera zenbat igoera daukazu kalkulatu?

Zerbait badut buruan baina ez dut gehiegi pentsatu nahi. Gauza 12 orduak betetzea da.

9. Entrenamendu berezirik egiten ari zara?

Urte hasieratik gabiltza entrenatzen, ez dut entrenamendu zehatzik egin. Beherakada txikiren bat ere izan dut. Kostatu zait baina buelta eman diot.

10. Ibilbidea nola egongo da?

Ongi. Nahiago dut hezetasun pixka batekin egotea.

11. Jendea zer dagokigu egitea?

Mikel: Herri hau lanean dago dispertsioaren kontra, presoen eta iheslarien eskubideen eta gatazkaren konponbidearen alde, baina konpromisoak hartzen jarraitu behar dugu. Lehen pausua presoak Euskal Herrira ekartzea da eta hurrena denak etxean izatea. Erronka asko daukagu bidean.